# *Compliance* Penalaren Politika

euskotren

| BERRIKUSPENEN HISTORIA | | | |
|---|---|---|---|
| Berrik. zk. | Egite-data | Nork onetsita | Arrazoia |
| 0 | 27/03/2024 | Administrazio Kontseilua | Dokumentua lehenengoz egitea |
| 1 | 09/01/2025 | Compliance Organoa | 24-25 kanporatutako auditoriako 5. eta 11. zenbakidun NCak eta OBSak betetzea |
| 2 | 29/09/2025 | Consejo de Administración | Jardueren eremua eta erantzukizun atala berrikusi egin |

# AURKIBIDEA

1. XEDEA ....................................................................................................... 3

2. APLIKAZIO-EREMUA ....................................................................................................... 4

3. ANTOLAKUNTZA-EGITURA / ERANTZUKIZUNAK ....................................................................................................... 5

4. EZ-BETETZEAREN ONDORIOAK ....................................................................................................... 6

5. BERRIKUSPENA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA ....................................................................................................... 6

# 1. XEDEA

EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS SA enpresak (aurrerantzean, "**Euskotren**" edo "Sozietatea") bere Kode Etikoa dauka. Dokumentu horretan ezartzen dira erakunde osoak bete eta errespetatu behar dituen printzipioak eta balio etikoak.
Zeregin horretan sakonduta, dokumentu hau idatzi da, "***Compliance* Penalaren Politika**", eta helburu du, batetik, arlo penaleko araudia betetzeko **Euskotren**en konpromisoak biltzea, eta, bestetik, erakundeko langileen jokabidea gidatzea garapen-arlo guztietan, helburu horiek bete eta gauzatzeko.

Dokumentu hau Sozietatearen Compliance Penaleko Kudeaketa Sistemaren (aurrerantzean, CPKS) barruan sartzen da, erakundearen jarduera osotasunean garatzean gauzatu daitezkeen arauak ez betetzearen arriskuak prebenitzeko, hautemateko eta goiz kudeatzeko ingurune bat sortzeko eta, halakorik gertatuz gero, inpaktu negatiboa minimizatzeko.

Jarduera horren barruan sartzen da trenbide-, tranbia-, funikular- edo errepide-garraioko zerbitzuak ematea, bai bidaiarienak, bai salgaienak. Zerbitzu horien barruan sartzen dira, besteak beste, material ibiltaria eta garraio horrekin zerikusia duten edo osagarriak diren beste zerbitzu edo jarduera batzuk mantentzea, bai eta burdinbidearen museoa kudeatzea ere.

Testuinguru horretan, dokumentu honetan jasotako neurriak halabeharrez bat datoz Euskotrenen arau eta helburuak errespetatzearekin eta, ondorioz, delitutzat har daitekeen jokabiderik ez onartzeko erabakiarekin. Horrek nabarmentzen du gure erakundeak, bere jarduerak garatzean, konpromiso handia duela maila etiko handienekin eta indarrean dagoen legedia betetzearekin.

Hori horrela, araudia betetzearen arloko helburuak honako hauek dira:

- Maila estrategikoan:

    - Erakundean araudia betetzearen eta gardentasunaren kultura sustatzea eta garatzea.
    - Euskotrenen aplikatu beharreko lege eta arau osagarriak betetzen direla bermatzea, bai eta erakundearen barruko eta/edo berezko kode, ildo eta gainerako arauak ere.
    - Legeak eta aplikatu beharreko gainerako arauak eta estandar etikoak eta jardunbide egokien estandarrak hausten edo urratzen dituzten arrisku edo kalteekiko esposizioa minimizatzea.
    - Aurreko helburuak lortzeko beharrezkoak diren barne-prozedurak ezartzea.

- Maila taktikoan:

    - Erakundeko langileen artean araudi penala betetzeari buruzko ezagutza areagotzea: informazioa eta prestakuntza.

- Betetzearen kudeaketa automatizatzea: komunikazio- eta salaketa-kanal bakarra, prozedura arautua, konfidentzialtasun-bermea eta sistemaren eraginkortasunaren egiaztapena.
- Gaia, kultura korporatiboa edo aplikazio-arloa tarteko, araudia betetzeko prebentzio- eta kudeaketa-programak batera egotea, prozedura orokorraren menpe eta betebehar berberekin.

- Maila operatiboan:

  - Langileen etengabeko prestakuntza, beren eginkizunaren edo lanpostuaren ezaugarrietara egokitua, gaiarekin lotutako arriskuaren edo, hala badagokio, hautemandako arriskuaren izaera eta/edo irismena kontuan hartuta.
  - Barne-auditoriak.

## 2. APLIKAZIO-EREMUA

Dokumentu hau eta aplikatu beharreko guztiak Euskotreneko langile eta zuzendari guztiei aplikatuko zaie eta denak lotetsiko ditu, baita Administrazio Kontseiluko kideak ere.

Era berean, Euskotrenek hirugarrenekin izandako harreman profesional eta/edo kontratu-harremanetan (kontratistak, hornitzaileak, kolaboratzaileak, etab.) estandar etiko gorenak betetzea bultzatuko du.

Euskotrenen *Compliance* Penala Kudeatzeko Sistema tresna eraginkorra eta fidagarria izan dadin etika eta jardunbide egokien kultura sustatzeko eta garatzeko, nahitaezkoa da delitutzat har daitezkeen jokabideak komunikatzeko eta/edo salatzeko bide bat prestatzea.
Hori horrela, gure erakundeko kidea den eta irregularra izan daitekeen gertakari eta/edo jokabideren baten berri duen edonork *Compliance* Organoari – Araudia Betetzeko Organoari (aurrerantzean, *Compliance* –AB– Organoa) jakinarazi behar dio, erakundeko Kanal Etikoaren bitartez.

Euskotreneko langile edo zuzendari guztiek, erakundearen barruan duten kargua eta eginkizunak gorabehera, aplikatu beharreko araudi penalean eta dokumentu honetan ezarritakoa betetzen dutela zaintzea espero da, eta, halaber, beren funtzioak etikoki betetzen dituztela, jardunbide egokien printzipioen arabera, hau da, irregulartasunen eta ez-betetzeen aurka egiten dutela eta une oro *Compliance* –AB– Organoak, sistemaren kudeaketaz eta tutoretzaz arduratzen den organoak, ezarritako jarraibideak betetzen dituztela.

Dokumentu honetan jasotako ildoak eta neurriak edo horiek garatzen dituzten dokumentuetan jasotakoak betetzen ez badira, diziplina-neurriak ezarri ahal izango dira, aplikatu behar zaizkigun Lan Zuzenbideko arauen, indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboaren eta *Compliance* Penalaren Diziplina Sistemaren arabera.

# 3. ANTOLAKUNTZA-EGITURA / ERANTZUKIZUNAK

## 3.1. *Compliance* Organoa –Araudia Betetzeko Organoa–

Euskotrenek *Compliance* Kudeaketa Sistema zuzentzen duen kide anitzeko organo bat dauka: *Compliance* Organoa –Araudia Betetzeko Organoa–.
*Compliance* –AB– Organoa barne-organo bat da eta agintaritza osoa du; horri esker, bere ekimenez eta autonomiaz jardun dezake. Dokumentu honetan jasotako neurriak eta ildoak betetzen direla zaintzeaz arduratzen da, bai eta Sozietatearen CKSari buruzko gainerako arauak, barnekoak zein legegintzakoak, betetzen direla zaintzeaz ere.
Azken horrek egoki irizten dion saileko/arloko pertsonen babesa eta laguntza izan dezake, bai eta arloan adituak diren kanpoko hirugarrenen aholkularitza ere.

*Compliance* Organoaren zeregina indarrean dagoen araudiarekin eta Euskotrenen barne-politika eta -prozedurekin bat datozen zerbitzuak emateaz eta jarduerak garatzeaz arduratzea da.
Ondorioz, *Compliance* –AB– Organoa da CKS eta bertan txertatzen diren sistemak ezartzearen arduraduna, kasu honetan CPKS ezartzearena. Hau da, indarrean dauden, legezkoak diren edo sozietatearenak diren eta aplikatu behar diren arau guztiak betetzen direla ziurtatzeko egokiak eta nahikoak diren politika, ildo, jarduketa-kode eta prozedura guztiak.

Hori horrela, *Compliance* Organoaren Estatutuan zehazten dira organo horren zeregin guztiak.

## 3.2. Gobernu-organoak

Araudi penala betetzeari dagokionez, Euskotrenen gobernu-organoa da *Compliance* Penala Kudeatzeko Sistema bultzatzeko eta formalki onartzeko arduraduna.

Konplimendu-politika formalki onartzea, politika horren ezarpena gainbegiratzea eta erakundearen estrategian txertatzen dela bermatzea dagokio. Gainera, etika- eta betetze-kultura sustatu behar du, sistemari baliabide nahikoak eman behar dizkio, eta konplimendu-organo bat izendatu behar du, independentziaz eta autoritatez. Sistemaren funtzionamendua ere ebaluatu behar du aldizka, eta jasotako txosten eta gomendioetan oinarritutako erabaki estrategikoak hartu.

## 3.3. Zuzendaritza Nagusia

Zuzendaritza Nagusiak, Euskotrenen ordezkari gorena denez, eta araudi penala betetzeari dagokionez, lidergoa eta konpromisoa adierazi behar ditu CPKSrekiko eta ziurtatu behar du sistema prozesu eta erabaki operatiboetan txertatzen dela, eta gobernu-organoaren jarraibideak betearazteaz, erakunde osoari betetzearen garrantzia jakinarazteaz eta ingurune etiko bat sustatzeaz arduratzen dela. Horretarako, Compliance Organoari -AB- arauak

betetzeko sistemak behar bezala ezartzeko behar diren baliabide ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak bermatuko dizkio, eta, kasu honetan, CPKS.

### 3.4. Tarteko agintariak eta gainerako langileak

Euskotreneko langile guztiek dute beren eginkizunak dokumentu honekin eta hau garatzen duten eta/edo honi lotzen zaizkion beste guztiekin bat betetzeko betebeharra.
Era berean, *Compliance* –AB– Organoarekin lankidetzan jardun behar dute zaintza- eta kontrol-eginkizunetan, eta harreman irekia eta arina izan behar dute, elkarren arteko komunikazioa eta lankidetza errazteko.
Arau-haustetzat edo araua haustearen susmagarritzat har daitekeen gertakari edo jokabide baten berri izanez gero, *Compliance* –AB– Organoari eman beharko diote horren berri nahitaez, Komunikazioko Kanal Etikoaren bitartez.

## 4. EZ-BETETZEAREN ONDORIOAK

Euskotrenen *Compliance* Penalaren Politika honetan edo hau garatzen edo osatzen duten beste dokumentu batzuetan jasotako neurriak eta ildoak ez betetzea eta etika eta jardunbide egokien aurkako edozein jokabide desegoki egitea zehatu egin ahal izango da, *Compliance* Penalaren Diziplina Sistemaren, Hitzarmen Kolektiboaren eta unean bakoitzean aplikatu beharreko eta indarrean dagoen lan-arloko legediaren arabera.

## 5. BERRIKUSPENA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Euskotrenek sistemaren eraginkortasuna eta efikazia etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen du, eta helburuen jarraipena, auditoriak (barnekoak zein kanpokoak) eta dagozkion ekintza zuzentzaileen ezarpena baliatuko ditu horretarako.

Dagozkion aldizkako berrikuspenak egingo dira, bai eta, Sozietatearen berezko inguruabarrengatik edo kanpoko kontingentziengatik, beharrezkoak diren beste batzuk ere.

# Política de Compliance Penal

euskotren

| HISTORIAL DE REVISIONES | | | |
|---|---|---|---|
| N. º Rev. | Fecha aprobación | Aprobado por | Motivo |
| 0 | 27/03/2024 | Consejo Administración | Primera emisión del documento |
| 1 | 09/01/2025 | Organo de Compliance | Dar cumplimiento a la NC menor nº5 y OBS nº11 de la auditoria externar 24-25 |
| 2 | 29/09/2025 | Consejo de Administración | Se incluye el alcance de las actividades en el apartado 1 y las responsabilidades |

# INDICE

1. OBJETO ........ 3
2. ÁMBITO DE APLICACIÓN ........ 4
3. ESTRUCTURA ORGANIZATIVA / RESPONSABILIDADES ........ 5
4. CONSECUENCIAS DE INCUMPLIMIENTO ........ 6
5. REVISIÓN Y MEJORA CONTINUA ........ 6

# 1. OBJETO

EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS S. A. (en adelante "**Euskotren**" o "la Sociedad") cuenta con su propio Código Ético, en el cual se establecen los principios y valores éticos a los que queda comprometida y debe respetar toda la organización.
Abundando en dicha tarea, se redacta el presente documento, **"Políticas de *Compliance Penal*** que tiene como objeto, por un lado, recopilar los compromisos de **Euskotren** en materia de cumplimiento normativo penal y, por otro, guiar el comportamiento del personal de la organización en todos sus ámbitos de desarrollo para la consecución y materialización de tales objetivos.

Este documento se integra dentro del Sistema de Gestión de *Compliance Penal* (en adelante, SGCP) de la Sociedad con la finalidad de crear un entorno de prevención, detección y gestión temprana de los riesgos de incumplimiento normativo que puedan materializarse en el desarrollo de la actividad de la organización en su conjunto y minimizar el impacto negativo en el caso de que estos se produzcan.

Dicha actividad comprende la prestación de servicios de transporte por ferrocarril, tranvía, funicular o carretera, tanto de viajeros como de mercancías, incluyendo el mantenimiento del material rodante y de otros servicios o actividades complementarias o vinculadas a dicho transporte, así como la gestión del museo del ferrocarril.

Todo ello, promoviendo una cultura de cumplimiento y buenas prácticas dentro de la organización y en ejercicio de mejora continua.

En este contexto, las medidas contenidas en el presente documento se alinean indefectiblemente con el respeto hacia las normas y objetivos de Euskotren y, en consecuencia, con la determinación de no tolerar ninguna conducta que pudiera considerarse constitutiva de delito, poniendo de manifiesto el alto compromiso de nuestra organización con los máximos niveles éticos y de cumplimiento de la legalidad vigente en el desarrollo de sus actividades.

Así, los objetivos en esta materia de cumplimiento normativo son los siguientes:

- A nivel estratégico:

    - Promover y desarrollar una cultura de cumplimiento normativo y transparencia en el seno de la organización.
    - Garantizar el cumplimiento de las leyes y normas complementarias de aplicación a Euskotren, así como códigos, directrices y demás normas de carácter interno y/o propias de la organización.
    - Minimizar la exposición a riesgo o daños que supongan contravenir o infringir las leyes y demás normas aplicables, así como los estándares éticos y de buenas prácticas.
    - Implementar cuantos procedimientos internos sean necesarios para la consecución de los objetivos anteriores.

- A nivel táctico:

- Incrementar el conocimiento sobre cumplimiento normativo penal entre el personal miembro de la organización: información y formación
- Automatizar la gestión de cumplimiento: canal único de comunicación y denuncia, procedimiento reglado, garantía de confidencialidad y verificación de la eficacia del sistema.
- Coexistencia de diferentes programas de prevención y gestión de cumplimiento normativo por razón de la materia, cultura corporativa o ámbito de aplicación, sometidos al procedimiento general y con sus mismas obligaciones.

- A nivel operativo:

    - Formación continua del personal trabajador, adaptada a las características de su función o puesto de trabajo, en atención a la naturaleza y/o alcance del riesgo asociado o, en su caso, detectado.
    - Auditorías internas

## 2. ÁMBITO DE APLICACIÓN

El presente documento y todos aquellos que las desarrollen son de aplicación y vinculan a todas las personas empleadas y directivas de Euskotren, incluyendo las personas que integran el Consejo de Administración.

Igualmente, Euskotren incentivará en su relación profesional y/o contractual con terceras partes (contratistas, proveedores, colaboradores, etc.) el cumplimiento de los más altos estándares éticos.

Para hacer del Sistema de Gestión de Compliance Penal de Euskotren una herramienta eficaz y solvente en promoción y desarrollo de una cultura ética y de buenas prácticas, se hace imprescindible habilitar un cauce para la comunicación y/o denuncia de conductas que puedan considerarse delictivas.
Así, cualquier persona que forma parte de nuestra organización y que tenga conocimiento de un posible hecho y/o conducta irregular, tiene el deber de comunicarlo al *Órgano de Compliance – Cumplimiento Normativo-* (en adelante, Órgano de Compliance-CN-) a través del Canal Ético de la organización.

De todo el personal trabajador o directivo de Euskotren se espera que, independientemente de su cargo y funciones dentro de la organización, velen por el cumplimiento de lo establecido en la normativa penal aplicable y en el presente documento; así como que lleven a cabo sus funciones de forma ética, de acuerdo a los principios de buenas prácticas, esto es, actúen en contra de irregularidades e incumplimientos y atiendan las indicaciones que, en todo momento, provengan del Órgano de Compliance –CN-, órgano responsable de la gestión y tutela del sistema.

Cualquier incumplimiento de las directrices y medidas contenidas en el presente documento, o en aquellos que las desarrollen, pueden dar lugar a medidas disciplinarias de acuerdo con

las normas de Derecho Laboral que nos sean aplicables, el Convenio Colectivo vigente y el Sistema Disciplinario del Compliance Penal.

# 3. ESTRUCTURA ORGANIZATIVA / RESPONSABILIDADES

## 3.1. Órgano de Compliance -Cumplimiento Normativo-

Euskotren cuenta con un órgano colegiado que dirige del Sistema de Gestión de Compliance, denominado -*Órgano de Compliance -Cumplimiento Normativo*-.
El Órgano de Compliance –CN- es un órgano interno y dotado de plena autoridad, lo que le permite actuar con iniciativa propia y autonomía. Se encarga de velar por el cumplimiento de las medidas y directrices contenidas en el presente documento, así como del resto de normas, sean internas o de naturaleza legislativa, relativas al SGC de la Sociedad.
Este puede recabar el apoyo y asistencia de personas del departamento/área que considere, así como la asesoría de terceros externos expertos en la materia.

La función de Compliance es la encargada de velar por que la prestación de servicios y desarrollo de actividades se lleven a cabo de acuerdo con la normativa vigente y con las políticas y procedimientos internos de Euskotren.
En su consecuencia, el Órgano de Compliance -CN- es responsable de implementar el SGC y los sistemas que en él se integran, como lo es en este caso el SGCP. Lo que es los mismo, cuantas políticas, directrices, códigos de actuación y procedimientos sean apropiados y suficientes para asegurar el cumplimiento de cuantas normas vigentes, legales o propias de la Sociedad, le sean aplicables.

Así, en el Estatuto del Órgano de Compliance se definen todas las funciones de este.

## 3.2. Órganos de gobierno

En materia de cumplimiento normativo penal, el órgano de gobierno de Euskotren es el máximo responsable de impulsar y aprobar formalmente el sistema de Gestión de Compliance Penal.

Le corresponde aprobar formalmente la política de compliance, supervisar su implantación y garantizar su integración en la estrategia de la organización. Además, debe promover una cultura ética y de cumplimiento, dotar de recursos suficientes al sistema y designar un órgano de compliance con independencia y autoridad. También debe evaluar periódicamente el funcionamiento del sistema y adoptar decisiones estratégicas basadas en los informes y recomendaciones recibidos.

## 3.3. Dirección General

La Dirección General como máximo representante de Euskotren y en cuestión de cumplimiento normativo penal debe manifestar liderazgo y compromiso respecto al SGCP asegurando que el sistema se integre en los procesos y decisiones operativas. s responsable

de ejecutar las directrices del órgano de gobierno, comunicar la importancia del cumplimiento a toda la organización y fomentar un entorno ético. Con tal fin, garantizará la disponibilidad al Órgano de Compliance -CN- los recursos económicos, materiales y humanos que sean necesarios para la adecuada implementación de los sistemas de cumplimiento normativo, y en este caso, el SGCP.

### 3.4. Mandos intermedios y demás personal empleado

Todo el personal empleado de Euskotren tiene la obligación de desarrollar sus funciones de forma alineada con el presente documento y cuantos otros lo desarrollen y/o se vinculen a él.
Igualmente, deben cooperar con el Órgano de Compliance -CN- en sus funciones de vigilancia y control, manteniendo una relación abierta y fluida al objeto de facilitar la intercomunicación y cooperación mutuas.
En el caso de conocer un hecho o comportamiento que pueda ser considerado incumplimiento normativo, o sospechoso de serlo, deberán ponerlo obligatoriamente en conocimiento del Órgano de Compliance -CN, a través del Canal Ético de Comunicación.

## 4. CONSECUENCIAS DE INCUMPLIMIENTO

El incumplimiento de la medidas y directrices contenidas en la presente ‘Política de Compliance Penal de Euskotren o en aquel otro documento la desarrollen o complementen, así como la comisión de cualquier conducta inadecuada, contraria a la ética y las buenas prácticas, son susceptibles de sanción de conformidad con el Sistema Disciplinario del Compliance Penal, el Convenio Colectivo y la legislación laboral de aplicación y vigente en cada momento.

## 5. REVISIÓN Y MEJORA CONTINUA

Euskotren se compromete a la mejora continua de la eficiencia y eficacia del sistema, haciéndose valer del seguimiento de objetivos, auditorias, tanto internas como externas, y la implementación de cuatas acciones correctivas correspondan.

Se llevarán a cabo las revisiones periódicas que correspondan y aquellas otras que, por circunstancias propias de la Sociedad o consecuencia de contingencias externas, lo hagan necesario.